

EUROPAKO NEKAZARITZA EREDUA

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN EKOIZPEN-EREDU EUOPARRA

Azken urteotan, Europan indarra hartu du "Nekazaritzako elikagaien ekoizpen-eredu europarra" izenez ezagutzen dugun ereduak. Eredu horrek bere baitan biltzen ditu zenbait lege-baldintza, eta baldintza horien arabera ekoiztu behar dira giza kontsumorako landare zein animalia jatorriko elikagaiak. Baldintzok arlo ezberdinak biltzen dituzte (animalien ongizatea, higiene praktikak, trazabilitatea, hondakinen kudeaketa...), eta euren helburua da ziurtatzea elikagaien kaltegabetasuna bermatuko duten eta gizarte eta ingurumen ikuspegitik iraunkorrak diren sistemen bidez ekoizten direla nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagaiak.

EREDUAREN LEHIAKORTASUNA

Ekoizleak lege-baldintza horiek guztiak betetzen baditu, ekoizpena murriztu edo garestitu egiten da; izan ere, lan-sistema berriak ezarri behar dira, lizentziak izapidetu behar dira, dokumentazioa bete behar da, albaitaritzalaguntza behar da... Eta horretaz gain, legea bete nahi izanez gero, maiz dirua inbertitu behar da instalazio eta hornidura berriak jartzeko.

Elikagaien arloko legedi hori oso zorrotza da; horrenbestez, nahiz eta Europar Batasunekoak ez diren herrialdeek bete behar ez duten, baimenduta dago hirugarren herrialde horietan ekoiztutako elikagaiak Europara inportatzea eta bertan merkaturatzea. Badira, hala ere, erakunde eskudunen kontrolen bidez ezartzen diren mekanismo eta sistemak, hirugarren herrialde horietatik inportatzen diren elikagaien segurtasuna bermatzeko. Nolanahi ere, merkatuan Europako ekoizlea izaten da kaltetua lehiakortasunari dagokionez, eta are gehiago aintzat hartzen badugu ohiko kontsumitzaileak ez dituela ezagutzen ekoizpen eredu ezberdinak.

Gaur egun, Europar Batasunak bultzatzen duen politikak bere baitan biltzen ditu kontrajarriak diruditen arauak: Europako ekoizpen-ereduaren finkapena, ekoizpenak Europako zein kanpoko merkatuetara bideratzeko beharra (2003an PAC Nekazaritza Politika Erkidegoa berritu zenetik) eta merkatua liberatzeko joera gero eta handiagoa eta muga-zergak babestekoa gero eta txikiagoa.

HAUSNARKETA EUROPAR BATASUNEAN

Egoera hain zaiala izanik, zentzuzkoa da EBn eztabaida sartu izana Europako ekoizpen-ereduaren lehiakortasunaren inguruan.

Europar Batasuneko Nekazaritza Ministroek maiatzaren 17an eginiko Kontseiluan eztabaidatu zuten eredu hori. Ez zuten ondorio argirik atera, baina ministro gehienek adierazi zuten ez dela zalantzan jartzen Europako ekoizpen-arau zorrotzak bete behar direnik eta eutsi egin behar zaiela, Europako kontsumitzaileen eskariak aintzat hartuta. Gaineratu zuten ereduak ez dela ongi ezagutzen nazioarte mailan, eta nahiz eta aitortu zuten gaur egungo sustapen-tresnak erabilgarriak diren, onetsi zuten hobetu daitezkeela. Beraz, ildo horri jarriki, zenbait proposamen egin zituzten: ekoizpen-arau estandar berberak exijitzea inportatutako ekoizpenei (elkarrekikotasun printzipioa), Europako ereduak beste herrialdeetara esportatzea edo nazioarte mailako sustapen kanpainak bultzatzea Europako ereduaren balio erantsia ezagutzera emateko.

2008. urteko abenduan eskatu zion Europako Kontseiluak Europako Batzordeari egin zitzala egoeraren txosten xehatua eta proposamenak, beste herrialdeetako nekazaritzako produktuak inportatzeko baldintzak aztertu ostean. Horrenbestez, txostena 2010. urtean amaitu aurretik argitaratuko dela aurreikusi dute.

Europar Batasuneko Espainiako Mahaiburutzaren ekimena

2010eko urtarrilaren 1ean Espainiak EBko Mahaiburutza hartu zuen, eta, ondorioz, Kontseiluko eta batzordeetako Espainiako ordezkariak arduratuko dira Bruselan, Luxenburgon eta Espainian egingo diren bilkuren eguneko gai zerrenda zehazteaz eta bilkurak zuzentzeaz lehenengo seihilekoan. Egoera horrela, Espainiako Mahaiburutzaren ekimenez, Gobernuak *“Impacto de las normas comunitarias en la competitividad del sector primario y agroalimentario”* (erantsiten da) izeneko dokumentua osatu du. Dokumentu horretan arau erkideek lehen ekoizpenean duten eragina aztertzen da, eta helburua da eztabaida bultzatzea Europa mailan.

Nazio mailan aztertu dute dokumentu hori nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleen ordezkariak, industriak eta nekazaritzako elikagaien banatzaileak. Oro har, denok ados daude abiarazitako ekimenarekin eta bertan biltzen diren ekintzekin, besteak beste: Europako ekoizleen lehiakortasuna bermatuko duen arau eremu orekatua, nazioarteko akordioak bilduko dituen (elkarrekikotasun printzipioa) ezartzea; eta Europako ekoizpen-ereduak sortuko duen kostua dela eta, nekazariei ordainsari egokia ematea.

Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen txostena

Europa mailan gai horri buruzko eztabaida bultzatzeko ildoari jarriki, Espainiako Mahaiburutzak joan den uztailan kontsulta bat egin zion Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari (CESE). Kontsulta horri erantzuteko, CESEko Nekazaritza, Landa Garapen eta Ingurumeneko Sail Adituak, gai horri buruzko txostenak egiteaz arduratzen denak, [“Fortalecer el modelo agroalimentario europeo”](#) txostena argitaratu zuen 2010eko apirilaren 28an: Txosten horretan Europako nekazaritzako elikagaien ekoizpen eredu defenatzen dute; izan ere, euren ustez ez dago beste eredu baliagarririk, ez eta Europarentzat interes estrategikoa duenik ere. Eredu horren helburua da *“herritarrei elikagai osasungarri eta seguruen hornidura bermatzea, munduan aitzindaria izango den nekazaritzako elikagaien sistema ekonomikoa eraikitzea, eta ekoizpena askotarikoa, kalitatekoa eta kontsumitzaileen gogokoa izatea”*. Nolanahi ere, aldi berean aitortzen dute sistemak badituela *“alde onak eta txarrak”*, eta honako hauek azpimarratzen dituzte: etorkizunean berriz aztertu beharko dira prezioen aldakortasunari aurre egiteko estrategiak, hobetu egin beharko da nekazaritzako elikagaien espezializazioa (jatorri izendapenak...), bultzatu egin beharko dira Europako nekazaritzako elikagaien sustapen-politikak eta kontsumitzaileei ematen zaien informazioa hobetu egin beharko da. Halaber, hobekuntza-neurriak apurka-apurka aplikatzea proposatzen dute, besteak beste: inportazioak kontrolatzea (Europako eragileekin elkarrekikotasuna); hedatze lanak gauzatzea; FAO, OMC, OIE eta antzeko erakundeen bidez Europako eredu sustatzea eta azaltzea; merkataritza hitzarmenetan lege-baldintzak txertatzea; garapen bideko herrialdeekin laguntza tekniko bideratzea (teknikariak prestatzea, funtzionarioak elkar trukatzeko, arau eta estandarrak osatzea...); euren sistemak Europako ereduarekin bat datozen garapen bideko herrialdeekin merkataritza eta finantza harremana hobetzea; eta legea sinpleagoa egitea.

ADIBIDE BAT: EUROPAKO EREDUAK HEGAZTI-HAZKUNTZAN IZANGO DUEN KOSTUA

Europako legedia, abeltzaintzako ekoizpen arloan, ekoizpen espezie guztietan aplika daiteke, bakoitzak bere ezaugarriak baditu ere. Nolanahi ere, eredu aplikatzeak hegazti erruleen hazkuntzan du eragin handiena gaur egun, batik batik eragin ekonomikoa. Hori guztia Animalien Ongizateari buruzko Legediaren eta, batik batik, *oilo erruleak babesteko gutxieneko arauak ezartzen dituen 1999ko uztailaren 19ko 1999/74/CE Zuzentarauaren (oilo erruleak babesteko gutxieneko arauak azartzen dituen urtarrilaren 11ko 3/2002 Errege Dekretuaren bidez Estatuko Antolamendu Juridikora egokitutakoa)* ondorio da. Zuzentarau horrek xedatzen du, besteak beste, 2012. urteko urtarrilaren 1etik aurrera oilo erruleentzako kaiola guztiak egokitu edo aberastu egin beharko direla. Aintzat hartu behar da gaur egun oiloentzako ia kaiola

guztiak ohikoak direla, hau da, egokitu gabeak. Horrenbestez, legea bete behar izanez gero, inbertsio ekonomiko handia egin beharko da; izan ere, instalazioak aldatu eta batzuetan nabe berriak egin beharko dira. Gaur egungo egoeran, araudia ezartzeak sektorea berregituratzea ekarriko du.

Espanian hegazti-hazkuntzako zenbait adituk (*Pazos jauna, Lizaso jauna, J.C. García jauna eta P. Alonso jauna*) duela gutxi argitaratu duten "**Costes legislativos para el sector productor de huevos**" izeneko lanean zehaztu egin dute Europako legedia betetzeak hegazti bakoitzeko izango duen kostua. Horretarako, berezi egin dute, besteak beste, animalien ongizateari, ingurumenari, trazabilitateari, Salmonellaren kontrolari eta biosegurtasunari buruzko araudien aplikazioa. Lan horretan, hala ere, ez dira aintzat hartu animalien elikadura arloko politiken, ustiatagietako esku-lanaren eta lan-segurtasunaren kostuak.

Kalkuluak egiteko, honako ezaugarri hauek dituen **ustiategi eredu** batean oinarritu dira: iparraldeko eremuko, 3 nabetan **200.000 oilo errule dituen**, eta enbalatze-zentroa fisikoki ekoizpen eremuarekin lotuta duena. Horrelako ustiategi batean Europako legedia betetzeak sortzen duen kostua 3,29 eurokoa da plazako eta urteko. Beraz, azterketa egiteko erreferentzia gisa hartu den ustiategiak **seihun eta berrogeita hemezortzi mila** euroko kostua izango luke urtean. Kalkulatutako gainkostuaren % 76 oilo erruleen ongizateari buruzko araudia ezartzeari dagokio.

